



TXILLARDEGI

«MARKIÑA ZARRA»

Orain dela urte batzu gertatu ohi zena, gaur ez da batere gertatzen. Eta alde batetik pozgarri bada ere, bestetik, eta idazleari dagokionez batez ere, gogorra izaten da. Alegia, orain dela hamabost edo hogeitaz urte, euskaraz liburu berri bat agertu, eta segituan genekien euskaltzale guztiok, eta segituan denok gogoz irakurtzen. Orain, berriz, urtean berrehun liburatatik gora argitaratzen direlarik, maiz gertatzen da liburu aipagarri batek oihartzunik batere ez izatea; eta irakurle guxtiegi ere bai, bide beretik, askotan euskaltzaleak ehunkada horietan zein hauta ez baitaki.

Nik neuk ere, ia txiripa hutsez irakurri dut Juan Jose Arrizabalaga markinarraren liburu hau: «Markiña zarra kontu-kontari» (1978). Euskaltzaindiko bilera batetan entzun nion norbaiti euskara bizia eta herrikoia dastatu nahi izatekotan, hortxe neukala aukera ederra; eta irakurria ez zait damutu. Irakurri baino zehazki aztertu ere egin baitut, lerroz lerro, eta pasadizuz pasadizu.

Hain zuzen ere, orain aipatuko dudan arazo hau ikutu du F. Kruttwig-ek Ithurri-ren Gramatikari egin dion hitzaurrean. Orpoz orpo Kruttwig-en eritziak segituko ez baditugu ere, berezketa funtsezko bat egiten zuen, ene ustez: goi mailako literatura beharrezkoa bada ere (eta inork ez du hau dudan jartzen: literatura landua, mezu ekarlea, plegu eta molde berrien bilatzailea, eta abar), literatura herrikoia ere beharrezkoa dela esaten zuen. Eta hau are beharrezkoago gertatzen da Euskal Herrian.

Alde batetik, jakina, azkeneko belauneko euskaldunak kenduta, gure euskaldun normala analfabetoa delako: alegia, ehunetatik larogeiek euskara inoiz landu ez dutelako. Eta, noski urrunegi dagoen euskara eskaintzen bezaie halakoei, atzera egiten dute. Literatur munduko kezka ere, bestetik, euskaldun multzo herriko horrek ez ditu ezagutzen, ez bizi-zen ere; eta «beste zerbait» behar du.

Baina, beste aldetik, azken belauneko euskaldun gazteok, kaletarrak ia denak, gaurko kezka eta ortografi-arauak hobeki ezaguturik ere, erdaldun munduan mogitzen dira eskuarki; eta euskara bizia, herrikoia, egiazkoa, gaizki ezagutu ohi dute. «Eman diezadake» esaten ongi dakite beharbada; baina fonetikaren aldetik, adjetiboaren aldetik, eta esaera itzuli ezinezkoen aldetik, maingu eta motz daude askotan. Hauek ere, beraz, literatura herriko horren beharra dute.

Hitz batez, eta honetara nindoan: DENOK DUGU GAUR «Markiña zarra» liburu mota honen behar gorria; eta argi eta garbi eskertu behar zaio bere lana Arrizabalaga jatorrari.

Arrizabalagak ia-ia transkribaketa fonetikoak ematen dizkigu bere liburuan. Ez beti, halere; eta penagarria da. Zerbait aldiz, idatzi beharra dela-ta, «belarria»ri uko egiten dio; eta aurrerago, askotan, egiazko forma fonetiko eskaintzen, egiazkoa, jatorra eta euskal fonetikaren arauera espero genuena. Kate mintzatuan bizkaieraz gertatzen diren soinu-aldaketei buruzko argi-iturria da Arrizabalaga-ren testua; eta

bizkaiera ikasi nahi dutenek ez dute liburuarekin denbora alferrik pasako. Ez horixe!

Baina areago ere esan daitekeela iruditzen zait.

Euskara Batua euskara bizian sustraituko badugu, eta ez idatzizko paradigma hotzetan bakarrik, «sustrai bila» joan behar dugu; eta sustrai horiek euskaldun herriak darabilen AHOZKO MINTZAIAN ezarri behar dira. Non bestela? Literatur eta idatzizko kodigo hori beharrezkoa bazen ere (eta guztiz zen beharrezkoa Euskaltzaindiak eman duen pausua), orain beste pausu bat eman behar du. Gernikar argi baten hitzak neure eginez, «aprender a hablar una lengua no es, como todavía creen algunos, aprender la gramática y el vocabulario, y pronunciarlo todo con el sistema fonético propio... Para hablar euskera, y no euskererdera, o lo que sea, hay que aprender también el sistema fonético vasco, tal como se conserva vivo en los euskaldunes a los que hay que imitar» (José Basterretxea).

Gaur, euskaldun berrien kopurua gero eta handiago denean, GUTIZ BEHARREZKOAK DIRA J. J. Arrizabalagaren egin duen liburu honen tankerako liburuak; eta merezi duten neurrian behar dira goraiatu eta gomendatu. Euskal Herria inoiz euskaldunduko bada, euskaraz MINTZARAZ euskaldunduko da, eta ez idatzizko erabaki soilen arauera bakarrik. Hots, euskara bizi hori zer den euskaraz ongi dakiten euskaldunek erakatsi behar digute; eta Arrizabalagak oso ongi daki euskaraz.

Ez, ordea, herrikoia delako, edo-ta bizkaiera mota horrek dituen soinu-aldaketak eta abar ongi azaltzen dituelako, bakarrik. Ez. Molde horretako liburuak, finak direnean, zientzi mailako lanetan ere lagun dezakete. Markinako euskarak, jakina denez, fama handia du; eta ongi merezia, liburu honek ere ageri denez. Baina azterketa sakonak merezi litzuke. Ez dakit nik inoiz egingo ote dudan halakorik; baina gauza harrigarri batzu somatzen dira hor, eta «sustrai bila» behar horretan oso egokiak hain zuzen.

Adibide behar batzu ematekotan, beraz, aldizkari hau ez baita linguistika-aldizkari bat, oso interesgarri da erdaratikako mailebuetan ageri den fonetika-lege mordoaren bizitasuna deskantse, lumero, agusilla, errobera, tejamana, kuskau, almuda, estomago, karmo interjezio farragarria, eta beste mila. Hor badago benetako harrobi bat.

Oso ohargarriak ere **nl-l**, **mb-m**, eta gainerako asimilazioen lerrokada gaitza. Oso ongi markatua ere **eztuat/etxuak** desberdintasuna; Euskara Batuan galdua, jakina denez. Oso harrigarria ere Iparraldean bizirik dagoen diferentzia **biga/bi**, Bizkaian ere bizirik ote dagoen sumatzea: «**esku bidak**» (29)/«**bixon begixok**» (51). Eta abar, eta abar mila bider.

Oso aipagarria ere «h» madarikatuaren aztarnak Markinako bizkaieraz: ogera, agotik, egun.

Irakasle bikaina Arrizabalaga: «arpegi eder sagar gordin kolore irudi» (67), «arratsalde eguzki begi baten» (95) eta beste mila; kaletarren artean nekez entzunak.

Betoz ondoko liburuok. Eta, alde zauririk, eskarrik asko!